

GIZARTE-ONGIZATEAREN ALORREKO ESKUMENETAN ETA JARDUERETAN BEREN PROGRAMAK ETA EKINTZAK GARATZEN DITUZTEN ENTITATEEI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.

1. Xedea

Deialdi honen xedea da garapenerako entitateei eta taldeei zuzendutako laguntza ekonomikoak ematea arautzea, eta, 2009an zehar, Gizarte Ongizatearen, Osasunaren eta Kontsumoaren Atalaren eskumenetan jardueren edo programa nahiz proiektu berrien urteko programak egitea arautzea, besteak beste honako sektore hauetan:

- Minusbaliotasuna / mendekotasuna.
- Familia eta haurrak.
- Kolektibo desfaboratuen gizarte-bazterketa eta gizarteratzea / pobrezia.
- Koordinazio sozio-sanitarioa.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
- Immigrazioa.
- Droga-mendekotasunak.
- Gizartearen intereseko beste batzuk.

2. Onuradunak

Diru laguntzaren helburu diren proposamenek Euskararen Udal Ordenantza bete beharko du, baita gainerako udal ordenantzak ere.

Diru-laguntzak eskuratu ahal izango dituzte elkartearen helbidea Ordizian duten, eta beren gizarte-programak udalerrian garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko entitate juridiko pribatuek.

Halaber, laguntzak jaso ditzakete udalerrientzat interesekoak izan daitezkeen jarduerak sustatzen dituzten gizarte-entitateek ere, horien sustatzaileek beren elkartearen helbidea Ordizian ez badute ere.

Entitateek indarrean dagoen legeriaren arabera eratuak egon beharko dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean erregistratuak egon behar dute (7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko elkarteei buruzkoa eta 145/2008 Dekretua, uztailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Errolda Nagusiaren Erregelamendua onartzen duena). Halaber, udal-intereseko irabazi asmorik gabeko elkarteen Erregistroan erregistratuak egon beharko dute.

3. Kanpo gelditzea.

Dei honetatik kanpo geldituko dira honako jarduera hauek:

- a) Subentzioei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2 eta 3. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batekin bat datozenak.
- b) Jardueraren izaera edo xedea kontuan hartuta, Gizarte Ongizate, Osasun eta Kontsumo alorrari dagozkion jardute-eremuekiko ezeinekin zuzeneko loturarik ez dutenak.
- d) Ez dira aintzat hartuko Konstituzio Zuzenbideak jasotzen dituen eskubideak urratuko dituzten elkarreetatik nahiz entitateetatik datozen proposamenak (14. art.: jaiotze, arraza, sexu, erlijio, iritziagatiko bereizkeria).

4. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskabideak aurkeztea

Oinarriak kontsultatzeko, dokumentazioa eskuratzeko nahiz argibideak eskatzeko, Ordiziako Udaleko Herritarren Harrera Bulegora joan, edo Udalaren web orria kontsulta daiteke: www.ordizia.org.

Diru-laguntzak jasotzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Elkartearen estatutuen arabera, elkartea ordezkatzeko eskumena duen pertsonaren NA.
2. Subentzio-eskaera normalizatua, I. Eranskin gisa erantsitako dokumentuari jarraituz, behar bezala beteta, eta Elkartearen estatutuen arabera, elkartea ordezkatzeko eskumena duen pertsonak sinatua.



3. Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarleen Erregistro Orokorrean izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.
4. Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren dokumentuaren fotokopia.
5. Banku- nahiz aurrezki-entitate batek luzatutako agiria, entitate eskatzaileak horretan irekita duen kontu korrante baten titularrak dela ziurtatuko duena.
6. Entitate eskatzailearen estatutuak eta curriculum: partaideak, helburuak, burututako jarduerak, eta abar.
7. Instituzioei, Erakundeei eta bestelakoei luzatutako subentzio-eskaerei buruzko aitortpena, edo, hala balitz, emanda dauden diru-laguntzei buruzkoa. IV. Eranskina.
8. Urteko ekintzen programaren deskribapen zehatza, edo diru-laguntzak xede izango duen proiektuaren definizioa. II. Eranskina.
9. Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua. III. Eranskina.
10. Eskatzailea 38/2003 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan onuradun ez izateko xedatutako baldintzetatik ezein ez dela betetzen adierazten duen erantzukizunpeko aitortpena. Horretan, espresuki adieraziko da zerga-betebeharrak eta/edo prezio publikoengatikoak egunean dituela, eta indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituela.
11. Aurreko urteko deian diru-laguntza jaso bada, horren justifikazioa aurkeztu beharko da, oinarri hauetako 10. eta 11. puntuetan jasotakoaren arabera.

Udalak entitatea edo elkarte udal-intereseko Elkarleen Udala Erregistroan erregistratuta dagoela egiaztatuko du bere kabuz.

Nolanahi ere, I. Eranskinean jasotakoaren arabera, jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak, aurkeztu zaion jardueraren baloratze aldera, behar beste informazio osagarri eska diezaiolke entitate eskatzaileari.

5. Aurkezteko epea eta tokia

Aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, deia iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ematen denetik hasita.

Eskabideak Ordiziako Udaleko Herritarren Harrera Bulegoan (Kale Nagusia, 26) aurkeztuko dira.

Entitate eskatzaileak aurkeztutako agiriak osatu gabe daudela, edo Oinarri hauetan eskatutako baldintzak ez dituztela betetzen egiaztatuta, hamar egun balioduneko epean akats formalak konpontzeko, edo nahitaezko agiriak aurkezteko eskatuko zaio. Hala egingo ez balu, eskatzaileak bere eskabidea alde batera utzi duela ulertuko da, eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, artxibatu egingo da besterik gabe.

Zuzenketak egiteko eskaera Udalaren iragarki-taulan jarritako iragarkiaren bitartez, eta Udalaren web orrian (www.ordizia.org) egingo da, deian adierazitako datan.

6. Eskabideak baloratzeko eta ebaluatzeko irizpideak

Diru-laguntza norgehiagokako araubidean emango da.

Eskabideak Gizarte Ongizate, Osasun eta Kontsumo Alorreko zerbitzu teknikoek aztertu eta baloratu dituzte; aipatu Alorreko Ordezkaritzak egingo du diru-laguntzak emateko proposamena, eta organo eskudunari (alkatetza) aurkeztuko dio, horrek erabaki dezan.

Diru-laguntzak jaso ahal izateko, entitate eskatzaileek lor daitezkeen puntu guztietatik erdia gutxienez lortu beharko ditu. Zenbatekoa eta baremoak honako irizpide hauen arabera zehaztuko dira:

a) Proposatutako programaren ezaugarriak, 40 puntu bitartean, honako alderdi hauei erreparatuta:

- Proposatutako programa Gizarte Ongizate Alorraren helburuekin eta lehentasunekin bat etortzea, alegia:
- - Marjinazio soziala eta desberdintasuna eragiten dituzten zioen prebentzioa eta horiek deuseztatzea.
- - Pertsonak eta taldeak gizartearen txertatzea bultzatzea, eta
- - Pertsonen eta taldeen garapen osoa eta askea bultzatzea.
- Programak garatuko den jardute-eremuari egingo dion ekarpena.
- Proposatutako halako beste jarduerarik ez egotea.
- Proposatutako programak gizartearen izango duen oihartzuna.
- Proposatutako programaren ibilbidea eta errotzea.
- Programaren diseinuan eta ezarpenean, genero eta kulturartekotasun ikuspegiak sartzea.



b) Entitate eskatzailearen ezaugarriak, 30 puntu bitartean, honako alderdi hauei erreparatuta:

- Udalerrian lanean jarraian eman dituen urteak.
- Antzeko beste entitaterik ez egotea.
- Proposatutako programaren ezaugarriak eta entitatearen helburuak (estatutuetan jasotakoak) bat etortzea.
- Elkartearen boluntarioak.
- Entitateak udalerriko zenbat lagun dituen.
- Elkartearen jardueren onurak jasotzen dituen kolektiboa.

c) Entitatearen finantza-baliabideak, 30 puntu bitartean, honako alderdi hauei erreparatuta:

- Aurkeztutako programako aurrekontuaren eta elkartearen urteko aurrekontuaren arteko proportzionaltasuna.
- Gastuaren aurrekontua, eta finantziazio-tasa.

7. Diru-laguntzen zenbatekoa

Entitate edo elkarte bakoitzari eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa ezartzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: aurrekontuaren bideragarritasuna, jarduerari aurreikusi zaion defizita, eta, hala badagokio, aurreko urteetan jarduera horretarako bideratu diren diru-laguntzak.

Diru-laguntzaren zenbatekoa inoiz ez da izango, bera bakarrik nahiz beste Administrazio Publikoek, edo beste erakunde publiko zein pribatuk emandako subentzio edo diru-laguntzekin batera, onuradunak burutuko duen jardueraren kostua baino altuagoa.

8. Ebazteko epea

Eskabideak hiru hilabeteko epean ebatziko eta jakinaraziko dira, deia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emango denetik hasita.

Finkatutako epeetan ebatzitakoaren berri ematen ez bada, administrazio-prozedurari buruzko araudian jasotako isiltasun-ondorioetarako, eskabidea ez onartuzat jo daiteke.

9. Diru-laguntza onartzea

Emandako diru-laguntza onartua izan dela ulertuko da, baldin eta elkartearen ordezkariak duen pertsonak, diru-laguntza eman izanaren jakinarazpena egin eta 10 egun balioduneko epean, idatziz uko egiten ez badio.

10. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuak

Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastutzat jotzen dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, eta oinarri hauetan finkatutako epean burutuko direnak. Betiere, Subentzioei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 31. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Aipatu aginduan aurreikusitakoez gain, ez dira diru-laguntzen xede izango:

- Entitatearen barruko kostuak: administrazioa, eraketa, eta abar.
- Bazkarietako kostuak, afarietakoak edo ostalaritzakoak diren bestelakoak, diru-laguntza jaso duen jardueran parte hartzen dutenen ondorioz sortutakoak izan ezik; jardueraren antolatzaileak kanpo.

Hala ere, eta zalantza sortuz gero, gastua egin aurretik kontsulta egitea gomendatzen da.

11. Diru-laguntzak ordaintzea eta justifikatzeko modua

Onartu den diru-laguntzaren % 50 onartutako unean ordainduko da, eta gainerako % 50, egindako gastua justifikatu ondoren.



Justifikazioa egindako gastuen ordainagiriaren bitartez egingo da (fakturak, nominak, kontratuak, eta abar); horiek jatorrizkoak, edo, hala dagokionean, fotokopia konpultsatuak izango dira, eta horiekin batera agiriaren zerrendatze bat egin beharko da. Horiez gain, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- Diru-laguntza jaso duen programaren edo jardueraren xehetasunezko oroitza-txostena. V. Eranskina.
- Sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa.
- Dokumentazio grafikoa (kartelak – programak) edo ikus-entzunezkoa. Halakorik balego.

Gastua justifikatzeko aurkeztuko diren fakturek honako datu hauek jaso beharko dituzte:

- Argi eta garbi adierazi behar du zein den Kluba, Elkarte, edo dena delakoa.
- Hornitzailearen edo kontratistaren identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Hornikuntza eta/edo zerbitzua sortu duen jarduera.
- Hornitutakoaren eta/edo zerbitzuaren deskribapen xehea.

Ez dira frogagiri gisa onartuko:

- Faktura edo ordainketa-ziurtagiriak luzatzeko bidea eman dezaketen jardueren gastu-oharrak.

12. Gastuak justifikatzeko epeak

Gastuak justifikatzeko frogagiriak deialdia izan den ekitaldiaren hurrengo urteko urtarrilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira. Hala ere, hurrengo urteko deialdira bildu ahal izateko, lehenik jasotako diru-laguntza justifikatu beharko da.

13.. Publizitatea

Diru-laguntzak jasoko dituzten onuradunek laguntza jaso duten ekintzen publizitate guztietan Ordiziako Udalaren lankidetzara agerrarazi beharko dute, eta Udalaren irudi korporatiboa errespetatu.

Halaber, onuradunek erabiliko dituzten komunikazio-elementu guztiak, idatziak eta ahozkoak, elebidunak izango dira, eta euskarari lehenetsua emango zaio (ordena, tamaina, egokiera, eta abar), euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko Udal Ordenantzan jasotakoa betez.

Bestalde, Udalak, eman dituen laguntzak argitaratuko ditu, Subentzioei buruzko Lege Orokorreko 18. artikuluan xedatutako betez.

14. Ez betetzea.

Oinarri hauetan edo diru-laguntzen emakidan ezarritako betebeharrak ez betetzeak, eta jasotako diru-laguntza behar bezala ez justifikatzeak, emandako diru-laguntza berraztertzea ekarriko du, eta, hala badagokio, emandako kopurua bertan behera uztea, murriztea edo itzuli behar izatea.

15. Diru-laguntzen finantza-kontrola

Diru-laguntzen onuradunek, eta diru-laguntzen xedearekin edo horren justifikazioarekin lotura duten hirugarrenek, Ordiziako Udalak diru-laguntza horiek behar bezala erabili eta justifikatu direla egiaztatze aldera egin ditzakeen finantza-kontrolatara eta egiaztapenetara makurtu beharko dira, nahitaez.

16. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sor litekeen edozein zalantza, Gizarte Ongizatearen Alorreko Ordezkaritzak ebaziko du, eta, gerora, horren berri emanen dio udal-organo eskudunari.



17. Arautegi ezargarria.

Oinarri hauetan xedatu ez direnetan, Subentzioei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta horren araudian xedatutakora makurtuko da.

18. Klausula gehigarriak.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango dira argitara, Subentzioei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 9.3 artikuluan xedatutakoa betez.



ALKATE – LEHENDAKARI JAUNA

LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK/ DATOS DEL REPRESENTANTE LEGAL		
Izen-abizenak Nombre y apellidos		
Helbidea (jakinarazpenetarako) Dirección (a efectos de notificaciones)		
N.A.N. D.N.I.	Telefonoak Teléfonos	
Udalerria Municipio	Posta kodea Código postal	Posta elektronikoa Correo electrónico
ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK/ DATOS DE LA ENTIDAD SOLICITANTE		
Erakunde eskatzailea Entidad solicitante	Elkarte/fundazioen erregistroko inskripzio zenbakia Nº de inscripción en el Registro de Asociaciones/Fundaciones	IFK CIF
Helbidea (jakinarazpenetarako) Dirección (a efectos de notificaciones)		
Udalerria Municipio	Posta kodea Código postal	Herialde Provincia
Telefonoak Teléfonos		Posta elektronikoa Correo electrónico
Diru laguntza eskatzen den programa edo aktibitatearen izena Título del programa o actividad para la que se solicita la subvención		
Eskatutako diru kopurua Cuantía solicitada _____ €		
Banketxea eta kontu korrontea Entidad bancaria y cuenta corriente _____		
Jarduera honetarako beste diru-laguntza eskaerarik egin duzu? Adierazi zein erakunderi. ¿Ha solicitado alguna otra subvención para esta misma actividad? Indique a qué organismo(s) SI NO		
Eskatutako diru kopurua Cuantía solicitada _____ €		Jasotako diru-kopurua Cuantía recibida _____ €

Ordizia(n), _____

Sinadura/Firma



DIRU LAGUNTZAK ELKARTEEI – GIZARTE ONGIZATEA / SUBVENCIONES A ASOCIACIONES – BIENESTAR SOCIAL
II. ERANSKINA: JARDUERAREN FITXA TEKNIKOA / ANEXO II: FICHA TÉCNICA DE LA ACTIVIDAD O PROGRAMA

Jardueraren izena Denominación de la actividad o programa			
Jardueraren lurralde eremua: Ambito territorial de la actividad:	Udalerrria Local	Herraldea T. Histórico	Autonomi Erkidegoa C. Autónoma
Lekua(k): Lugar/es de realización:			Ordu kopurua: Nº de horas:
Jardueraren egutegia: Calendario de la actividad	Hasiera data _____ Fecha de inicio _____		Bukaera data _____ Fecha de finalización _____
Erabilitako hizkuntza: Lengua empleada:	Euskara/ euksera? Beste bat/ otra ?	Gaztelania/ castellano?	Helebitan / bilingue ?

jardueraren deskribapena:
Descripción de la actividad o programa:



Helburuak:

Objetivos:

Ebaluatzeko indikadoreak edo irizpideak/ Criterios o indicadores de evaluación:





Ordiziako Udala

IV. ERANSKINA: BESTE DIRU LAGUNTZAK / ANEXO IV: OTRAS SUBVENCIONES

El Sr./ Sra. **jaunak/ andreak** con el D.N.I.
nº, **N.A.N zenbakidunak** / en nombre y representación de
.....**-ren izenean** en calidad de
.....**bezala, ziurtatzen dut: /** certifico que:

? **Ez duela Ordiziako Udala ez den beste administrazio publiko edo entitate publiko edo pribatutik aktibitate edo programa honetarako.....beste dirulaguntzarik eskatu edo jaso /** No es beneficiaria de subvenciones o ayudas económicas de otras Administraciones o Entidades Públicas/Privadas correspondientes a.....

? **Aktibitate edo programa honetarako.....Ordiziako Udala ez den beste administrazio publiko edo entitate publiko edo pribatu batetik diru laguntza eskatu edo jaso duela, ondoren zehazten den bezala: /** Es beneficiaria de subvenciones o ayudas económicas de otras Administraciones Entidades Pública/Privada correspondientes a....., según el siguiente detalle:

Dirulaguntza eman dion administrazioa edo entitatea: / Institución Pública/Privada:

Diru laguntza kopurua: / Importe de la subvención:

Ordizian, 2008korenan./ En Ordizia, a.....de.....de 2008.

(Sinadura/ firma)



V. ERANSKINA: JUSTIFIKAZIO MEMORIA / ANEXO V: MEMORIA DE JUSTIFICACION

ELKARTEAREN EDO FUNDAZIOAREN DATU OROKORRAK DATOS GENERALES DE LA ASOCIACIÓN O FUNDACIÓN		
Erakunde eskatzailea Entidad solicitante		
Sozietatearen egoitza Domicilio social		Bazkide kopurua: Número de socios/as:
Udalerrria Municipio	Posta kodea Código postal	Herrialdea Provincia
Telefonoak Teléfonos		Posta elektronikoa Correo electrónico
Elkarte/fundazioen erregistroko inskripzio zenbakia: Inscripción en el Registro de Asociaciones/Fundaciones N°	Erregistro data: Fecha de Registro:	IFK CIF

ELKARTEAREN EDO FUNDAZIOAREN LEGEZKO ORDEZKARIA REPRESENTANTE LEGAL DE LA ASOCIACIÓN O FUNDACIÓN	
Izen-abizenak: Nombre y Apellidos:	
Helbidea eta udalerrria: Domicilio y Localidad:	
Telefonoa: Teléfono:	NAN: DNI:

JUSTIFIKAZIOAREN MEMORIA
MEMORIA DE LA JUSTIFICACIÓN

Jardueraren izendapena: Denominación de la actividad:			
Jardueraren lurralde eremua: Ambito territorial de la actividad:	Udalerrria Local	Herrialdea T. Histórico	Autonomi Erkidegoa C. Autónoma
Etorri den pertsona kop: N° de personas asistentes:	Lekua(k): Lugar/es de realización:	Ordu kopurua: N° de horas:	
Jardueraren egutegia: Calendario de la actividad:		Hasiera data _____ Fecha de inicio _____	Bukaera data _____ Fecha de finalización _____
Erabilitako hizkuntza: Lengua empleada:	Euskara/ euksera? Beste bat/ otra ?	Gaztelania/ castellano?	Helebitan / bilingue ?



Eginiko jardueraren deskribapena:

Descripción de la actividad realizada:

Ebaluatzeko indikadore edo irizpideak/ Criterios o indicadores de evaluación:



Erabilitako metodologia:

Metodología empleada:

Ondorioak:

Conclusiones:





Ordiziako Udala



Ordiziako Udala